

## Aitzin Solasa


---

1995eko irailaren 5 eta 6an Eusko Ikaskuntzaren bidez Oñatiako Unibertsitatean W. von Humboldt: un puente entre dos pueblos. Hezkuntza, Hizkuntza, Euskal Herria gaiari buruz mintzatzeko, 18 ikerlari eta beste jende ugari bildu ginen. Ondoren, 1996an, RIEV aldizkarian argitaratu ziren bertan aurkeztu ziren txostenak. RIEV aldizkaria eta Eusko Ikaskuntza 1912-1925 urteotan Humboldtologiareng baitan sartu ziren eta garaiko abiadan berriz murgildu dira. Aipaturiko RIEV aldizkarian J. Intxaustiren artikuluan azken 200 urteotako Humboldten lanen ezagutza eta zabalkunde Euskal Herrian azaltzen da eta ez dugu berriz hemen errepikatuko. Ildo horretan, noizik behin, horrelako jardunaldiak egin behar direla uste dugu. Eta 2001eko efemerideak, aukera eta bidea ematen zigun.

1801an, W. von Humboldt Euskal Herrian barrena ibili zen, euskaldunen gizartea ezagutzen eta beharbada antzinako aztarnak, literaturan eta gizarte antolaketan, arakatzen eta ikertzen egon zen. 200 urte betetzen ziren eta Eusko Ikaskuntzaren Bizkaiko eta Arabako ordezkaritzaren bidez, berriz ere, Humboldteri buruzko ikerketen eta gogoeten harian, hitzaldi sorta eta beste ekintza batzuk antolatu genituen. Oraingoan, 2001eko apirilaren 5ean Bilbon, apirilaren 6an Vitoria/Gasteizen eta hurrengo egunean Gernikan egin ziren ekitaldiak.

Ondoko orrialdeetan hiru leku horietan azaldu eta eztabaideatu ziren gaiak argitaratzen ditugu. Ikerketa zuzenak batzuk, Humboldti buruzko artxibategi berrien albisteak eta bere garaiari buruzko gogoetak. Partaide izan ziren guztiei, lerro hauen bidez, geure eskerrik sutsu eta beroenak.

1995eko jardunaldiaren jarraipena dugu, oraingo hau eta hein handian berrikuntzak agiri zaizkigu. Eta alde horretatik, zientziaren ohiko zeregin pen-



Riev 41, 2 (1996).

Iopianoan murgildurik daude ekarpen guztiak, etorkizunean ere, egin eta desegingo direlakoan, zientziaren egitekoaren muina horixe baita. Humboldt - Euskal Herria da geure diskurtsuaren ardatza.

Jardunaldien hariaren abiadan beste bi ekintza nabarmendu behar ditugu: 2001eko otsailean "Klasikoak" izeneko bilduman Wilhelm von Humboldt-en Idazki hautatuak euskaraz argitaratu zirela. Testuen hautatzaileak Clemens Menze eta Joxe Azurmendi izan dira, euskaratzalea Pello Zabaleta, eta liburua Bilboko ekitaldian aurkeztu zen.

Horrez gainera, Pello Zabaleta dugu ondoko orrietako Clemens Menze eta Bernhardt Hurchen lanen itzultzalea eta ondorioz gaian aditua den kalitate goreneko itzulpena eskaintzen da.

Bestalde, Euskal Herria Museoak, Gernikan, W. von Humboldt eta Euskal Herria izeneko erakusketa antolatu zuen eta lerro hauen bidez geure esker ona adierazi nahi diegu Museoko zuzendaritzari, erakusketaren bidez besteak beste, sekula publikoki erakutsi gabeko agiriak eta margoak ikusteko aukera egon zelako. Horrez gainera bertan 2001eko apirilaren 7an ekintza publiko hunkigarria eratu zen Humboldten lanen irakurketa eta biografiari buruzko zehaztapenak eginez.

Ekitaldi hauetan ondoan aipatzen ditugun erakundeak, laguntzaile izan genituen eta geure eskerrik beroenak azaldu nahi dizkiegu, aurrerantzean ere Humboldt-Euskal Herria ekimenaren babesle izan daitezen: Bilboko Udaleko Bidebarrieta Kulturgunea, Euskal Herria Museoa, Bizkaiko Foru Aldundia, Gernikako Udal, Arabako Lurralde Historikoaren Agiritegia eta Euskal Herriko Unibertsitateko liburutegia.

Azkenik, berba bi Clemens Menze ikerlariaren omenez. Bere ezin etorria adierazi zuen baina bere lanak bidali eta irakurri genituen. Duela gutxi hil egin da eta bere ekarpenak balio handikoak direlakoan gaude. Clemens Menze, Koloniako Unibertsitateko Irakasle eta Errektore ohia, Wilhelm von Humboldt-i buruz berezilari gailenetako bezala internazionalki aitortua, beti laguntzaile eskuzabala izan da euskaldunon hari buruzko edozein asmotan, hala Eusko Ikaskuntzak antolaturiko bi Kongresuetan (1995, 2001), bietan gogotik kolaboratu baitzuen, nola Klasikoak Sailean argitaraturiko Humboldt-en antologiaren prestakuntzan. Bere irakaspenengatik eta laguntzagatik eskerronezko oroipena zor eta aitor diogu hemen.

\* \* \*

EUSKO IKASKUNTA/SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS hat bei verschiedenen Gelegenheiten sein Interesse an Wilhelm von Humboldt gezeigt, besonders an dem Teil seines Werkes, der sich auf die Basken bezieht. So hat sie in September 1995 in der historischen Universität von Oñate einen Kongress unter dem Titel "Wilhelm von Humboldt, eine Brücke zwischen zwei Völkern", organisiert. An diesem Kongress haben namhafte Fachleute aus Deutschland und dem Baskenland teilgenommen. Die Akten dieser Verans-

taltung sind in der RIEV – Revista Internacional de Estudios Vascos [Internationale Zeitschrift für Baskische Forschungen] 41, 2, 1996, 267-668 veröffentlicht worden. In der angeführten Ausgabe der RIEV kann der Leser einen ausführlichen Bericht über Humboldts Texte zum Baskenland finden, sowie über seine Präsenz in der baskischen Literatur der letzten zweihundert Jahre.

Aus Anlass des 200. Wiederkehrs seiner zweiten und wichtigeren Reise ins Baskenland fand nun ein zweiter Kongress zum Thema Humboldt im April 2001 in Bilbao, Gernika und Vitoria statt, der ebenfalls von EUSKO IKASKUNTZA/SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS vorbereitet wurde mit der Unterstützung der Diputationen von Alava und Biscaya. Die Akten werden hier abgedruckt. W. von Humboldt ist –politisch und philosophisch– ein Beobachter und Denker Europas gewesen. Humboldt ist nach den Worten des herausragenden Linguisten Koldo Michelena nicht der einzige, aber wohl “der scharfsinnigste ausländische Beobachter, der sich jemals dieser Wirklichkeit angenommen hat, die Baskenland heisst”, so dass dessen Ansichten und Informationen über das baskische Volk, seine Sprache und Musik, Sitten und politisches Denken für uns von höchstem Wert sind, nicht nur aus historischer Sicht. Wir sind sicher, dass an den Universitäten des Baskenlandes das Interesse am Studium Humboldts in den kommenden Jahren weiter wachsen wird.

Wir haben heute die traurige Pflicht, den Tod von Herrn Professor

Clemens Menze, des früheren Rektors der Universität Köln, anzuzeigen. Als anerkannte Autorität in Humboldt-Studien hat er uns stets Rat und Mitarbeit gewährt. An beiden Kongressen hat er aktiv mitgewirkt, wenn er auch bei der letzten Veranstaltung aus Krankheitsgründen nicht anwesend sein konnte. In dieser Ausgabe der RIEV kann man in Übersetzung die letzten der zahlreichen während seiner glänzenden akademischen Laufbahn verfassten Aufsätze über Humboldt nachlesen. Die Beiträge sind speziell für unseren Kongress geschrieben worden, bei dessen Vorbereitung Herr Professor Menze uns grosszügig und unermüdlich unterstützte. Wir werden ihm ein ehrendes Andenken bewahren.

\* \* \*

EUSKO IKASKUNTZA/SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS ha mostrado en repetidas ocasiones su interés por la obra de W. von Humboldt en general y por la referida a los vascos en especial. Así en setiembre de 1995 organizó en la histórica Universidad de Oñate un primer Congreso bajo el lema “W. von Humboldt: un puente entre dos pueblos” en el que tomaron parte diversos especialistas de Alemania y del País Vasco. Las Actas del Congreso fueron editadas en la RIEV - Revista Internacional de los Estudios Vascos, 41, 2, 1996, pp. 267-668. En el citado número de RIEV puede encontrarse un informe exhaustivo de los escritos de Humboldt sobre el País Vasco así como de su presencia en las letras vascas en los últimos doscientos años.

Como continuación y con motivo del bicentenario del segundo y principal viaje de Humboldt al País Vasco tuvo lugar en Bilbao, Gernika y Vitoria un

segundo Congreso en torno a Humboldt en abril de 2001, organizado por EUSKO IKASKUNTZA/SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS con el apoyo de las Diputaciones de Álava y Bizkaia, cuyas Actas se publican ahora en este número de RIEV – Rev.... Humboldt es –política y filosóficamente– un observador y un pensador de Europa. W. von Humboldt es, en palabras del eximio lingüista Koldo Mitxelena, no el único, pero sí “el observador extranjero más perspicaz [“averti”] que se haya inclinado [“penché”] nunca sobre esta realidad que se llama el País Vasco”, y su visión de esta realidad, así como sus informaciones sobre el pueblo vasco, su lengua, música, costumbres y pensamiento político, tienen para nosotros el mayor valor, no sólo histórico. Podemos estar seguros de que en los próximos años el interés por el estudio de Humboldt irá en aumento en las Universidades del País Vasco.

Tenemos que lamentar la pérdida del Profesor y Exrector de la Universidad de Colonia Clemens Menze, máxima autoridad en los estudios sobre Humboldt. El nos honró siempre con su colaboración y con su consejo, tomó parte activa en ambos Congresos, aunque en el último no pudo estar presente por motivos de salud. En éste número publicamos en traducción los últimos de los muchos estudios sobre Humboldt de los que en su brillante carrera académica ha sido autor, escritos expresamente para nuestro Congreso, en cuya preparación ayudó generoso e incansable. Guardaremos su memoria en honor.

Agirreazkuenaga, Joseba,  
Azurmendi, Joxe  
editors